



Eskubide menstrualak

Edukia eta laburpena:



Menstrualmente
hablando

www.menstrualmentehablando.com



La vida en rojo
ASOCIACIÓN DE CULTURA MENSTRUAL

www.lavidaenrojo.org

Euskaratzea :





Ara! Gorputz

www.aragorputz.eus




This work is licensed under CC BY-NC-SA 4.0




**Sexu eta ugalkortasun osasunaren eta
haurdunaldiaren borondatezko
etenaldiaren Otsailaren 28ko 1/2023**

Lege Organikoa, martxoaren 3ko
2/2010 Lege Organikoarengatik
ordeztua izan dena.





Laburpen bat



Edukia

- LO1/2023ren laburpena
- Zein eskubide dugu
- Nola aldarrikatu



Kontutan hartzekoak

- **Estatala**: Lege Organiko batek bere gainetik konstituzioa du soilik. Erkidego guztietan aplikatzen da.
- **Indarrean**: 2023ko martxoaren 1etik (2023ko ekainaren 1ean indarrean sartu ziren artikuluko pare bat izan ezik)

33 artikulua

I TITULUA. Erantzukizun instituzionala osasunaren eta sexu eta ugalketa eskubideen alorrean.

I KAPITULUA. SEXU ETA
UGALKETA OSASUNA
SUSTATZEKO POLITIKAK



1.

Helburua

Sexu eta ugalketa alorreko **oinarrizko eskubideak** bermatu. Osasuna eta **hezkuntza** lortu. Indarkeriak prebenitu.



2.

Definizioak

Sexu osasuna, ugalkortasun osasuna, **OSASUNA** **MENSTRUAZIOAN** **ZEHAR**, hilerokoaren kudeaketa, bigarren mailako hileko desgaitzailea.



3.

Zuzentasun printzipioak eta aplikazioa

Askatasuna.
Irisgarritasuna.
Interseksionalitatea.
Ahalduntzea.



4.

Sarbide berdintasuna

Lurralde oreka.



5.

Politika publikoak

HAU
GARRANTZITSUA
DA
6 azpi artikulua ditu

33 artikulua

I TITULUA. Erantzukizun instituzionala osasunaren eta sexu eta ugalketa eskubideen alorrean.

I KAPITULUA. SEXU ETA UGALKETA OSASUNA SUSTATZEKO POLITIKAK



6.

Laguntza

Irabazi asmorik gabeko erakundeen parte hartzea, **elkar-teak**, etab.



7.

Sexu osasunari arreta

5 sub artikulua: sexu osasuna, ugalkortasun osasuna, kontrazepzioa, erantzunkidetasuna, urgentzia-zko kontrazepzioa.



8.

Osasungintzako profesio-nak formatu


Parekidetasunaren ikuspuntu-a, integrala, kompetentziak dituzten **ikasketetan** programak txertatu.



9.

Formazioa hezkuntza sisteman

GARRANTZITSUETAKO BAT



10.

Hezkuntza komunitatea

GARRANTZITSUETAKO BAT
6 sub-artikulua

33 artikulua

IV. KAPITULUA LEGEA BENETAN APLIKATZEKO NEURRIAK

II. TITULUA HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEA



11.

Estatu
mailako
estrategia

Irabazi asmorik
gabeko
erakundeen parte
hartzea,
ELKARTEAK, etab.



12.

Haurdinaldia
eteteko
aukera
bermatua



13.

Haurdinaldia
eteteko
baldintzak



14.

Lehen 14
asteetan



15.

Arrazoi
medikuengatik

33 artikulua

II. TITULUA HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEA



16.
Batzorde
klinikoa



17.
Haurdinaldia
etetearen
inguruko
informazioa



18.
Sarbide
bermatua



19.
Sarbidea
bermatzeko
neurriak



20.
Intimitatera
eskubidea,
isilpekotasuna,...

33 artikulua

II. TITULUA HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEA

III. TITULUA Sexu eta ugalkortasun eskubideen babesa eta bermea

I Kapitula Erakundeen arduraren irismena



21.

Datuen trataera



22.

Datuetara sarbidea eta horien lagapena



23.

Datuak ezabatzea



24.

Erakundeen ardura

Sexu eta ugalkortasun eskubideen urrapenak ekiditeko, ikertzeko, zigortzeko ezabatzeko eta erreparatzeko neurri integral eta eraginkorrak



25.

Sentsibilizazioa eta informazioa

Denentzako irisgarriak izango diren informazio ekintzak eta kanpainak. Osasun zentro guztietan ere.

33 artikulua

III. TITULUA Sexu eta ugalkortasun eskubideen babesa eta bermea


I Kapitulua
Erakundeen arduraren irismena

II. KAPITULUA Ginekologia eta obstetrizia eremuetan



26.

Gizarte entitate
espezializatuak



27.

Printzipioak

Irabazi asmorik
gabeko instituzioei
laguntza, promozio
programekin eta
praktika onen
difusioarekin
(ginekologia eta
obstetrizia osasuna)




28.

Ikerketa eta
datu bilketa



29.

Prebentzioa
eta formazioa



30.

Politika
publikoak
eta
protokoloak

33 artikulua

III. TITULUA Sexu eta ugalkortasun eskubideen babesa eta bermea

III. KAPITULUA Prebentzio neurriak eta erantzuna sexu eta ugalkortasun osasunaren eremuan ematen diren emakumeon kontrako bortizkerien aurrean



31.

Behartutako
haurdunaldiaren
etetea eta
behartutako
antzutzea



32.

Subrogazio
bidezko
haurdinaldiak
sahiestea



33.

Ordainpeko
haurdunaldiak
sustatzea
debekatzea



5. Artikulua



5.1. Botere publikoek honako hauek bermatzen dituzte:

- a) Sexu eta ugalkortasun osasuneko zerbitzu eta programetarako sarbide publikoa, unibertsala eta doakoa.
- b) Osasunari, sexu eta ugalketa eskubideei buruzko kalitatezko informazioa modu eraginkorrean sortzea eta zabaltzea.
- c) Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan hezkuntza afektibo-sexuala lantzea.
- f) Sexu eta ugalkortasun osasunari buruzko osasun-hezkuntza integrala.
- h) Emakumeek osasunarekin eta sexu zein ugalketa-eskubideekin lotuta jasan dezaketen indarkeria mota oro prebenitzea, zigortzea eta ezabatzea.
educación afectivo-sexual en Educación, en Formación Profesional.


j) Hilekoari buruzko hezkuntzari eta hilekoaren kudeaketarako produktuei buruzko kalitatezko informazioa modu eraginkorrean sortzea eta zabaltzea.

5.2. Botere publikoek honako hau sustatzen dute:

- d) Bizitzaren etapa desberdinetan dauden pertsonei zuzendutako arreta espezializatua, haurtzaroan eta gaztaroan arreta berezia jarritz, baita emakumeen helduaroan gertatzen diren klimaterio eta menopausiaren garaian ere.



5. Artikulua bis



Sexu osasuna, osasunaren estandar gisa.

Botere publikoek **aitortuko dute hilekoarekin lotutako osasuna sexu eta ugalketa osasunaren eskubidearen parte** dela. Era berean, hilekoari buruzko estereotipoak desagerrarazten saiatuko dira, horiek emakumeek, nerabeek eta neskek euren eskubideak izateko eta erabiltzeko dituzten oztopoak sortzen dituztelako. gativamente en el acceso o el ejercicio de los derechos humanos de las mujeres, las adolescentes y las niñas.

Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak, gizarte zientifikoekin elkarlanean, hilekoaren garaian ematen den osasun-arretarako gutxieneko irizpideak ezarriko ditu, sexu eta ugalketa osasunaren arretaren esparruan. Horretarako, eskubide sexual eta ugalketa eskubideen ikuspegitik abiatuta jardungo du, maila guztietan berdintasuna bermatuz, **ikerketa bultzatuz eta hilekoari buruzko estereotipoetan oinarritutako diskriminazioa desagerrarazteko neurriak** hartuz.



5. Artikulua ter



Lan-arloko eta Gizarte Segurantzako neurriak hilekoaren garaiko osasunari buruz

Osasun eskubidea eta lana bateragarri egiteko, menstruazio arazoek eragindako **bigarren mailako desgaitasunak** dituzten emakumeei aitortzen zaie **desgaitasun tenporala** izateko egoera berezia, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateratuan (2015eko urriaren 30eko 8/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutakoa) jasotako baldintzen arabera.



5. Artikulua quarter



Hilekoaren kudeaketarako produktuen banaketari buruzko neurriak

1. Ikastetxeek bermatuko dute hilekoaren kudeaketarako produktuak behar diren egoeretan doan eskuratu ahal izatea, horretarako ezarritako bideak erabiliz.
2. Era berean, produktu horiek doan emango zaizkie **gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeei gizarte zerbitzuen egoitzetan**, eta baita espetxeetan edo **askatasuna galdu duten pertsonak** dauden lekuetan ere.
3. Produktuak ematerakoan, erabiltzaileen aukerak errespetatuko dira. **Produktuak inolako bitartekaririk gabe egongo dira eskuragarri**, eta erabiltzaileen identitatearen eta konfidentziasunaren babesa bermatuko dira.
4. Artikulu honetan aipatutako erakunde publikoek produktu iraunkorrak, organikoak, ekologikoak, azkar degradatzen direnak, berrerabilgarriak eta **kimikorik gabekoak** erabiliko dituzte **lehentasunez eta pixkanaka**, ingurumenari eta emakumeen eta beste erabiltzaileen osasunari ahalik eta eragin txikiena izateko asmoz.
5. Aurreko neurriak pixkanaka ezarriko dira artikulu honetan aipatutako erakunde publikoen egoitzetan.
6. Debekatuta dago administrazio publikoek emandako hileko-produktuak saltzea, eta horien erabilera arduratsua sustatuko da.



5. Artikulua quinquies


Hilekoaren kudeaketarako produktuen merkaturatzeari buruzko neurriak

Estatuaren lurraldean merkaturatzen diren hilekoaren kudeaketarako produktu **guztiak osasunerako kaltegarriak diren osagaietatik libre** egon behar dute.

Ekoizleek derrigorrezkoa izango dute beren produktuen osagaiak eta **gizakien osasunean izan ditzaketen ondorio posibleak, baita ingurumenari egiten dioten eragina ere**, publikoari jakinaraztea.




5. Artikulua sexies



Arreta integrala eta espezializatua, guztientzako eskuragarri

1. Administrazio publikoek bermatuko dute **arreta integrala eta espezializatua guztion eskura** egotea, aurreko artikuluetan zehaztutako bermeak eta helburuak betez.
2. Horretarako, 2006ko 1030/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzuen karteran sartuta dauden espezializatutako zerbitzuak martxan jarriko dituzte. Zerbitzu horiek **diziplina anitzeko profesionalek** osatuko dituzte, eta bizitzako une guztietan sexu eta ugalketa osasuna sustatzea izango dute helburu. Zerbitzu espezializatu horiek tokiko eta autonomia-erkidegoko beste erakundeekin lan egiteko erreferentzia izango dira.
3. Populazio osoari zuzendutako zerbitzu espezializatuak gain, administrazio publikoek **gazteen sexualitatearen garapena eta modu integralean lantzeko zerbitzuak sortuko dituzte, euren parte-hartzea bultzatuz eta euren behar eta eskaerei egokituz. Gainera, adineko emakumeen osasun afektibo-sexualari arreta berezia emango zaio**, haien ezaugarriak kontuan hartuta.
4. Zerbitzu espezializatu hauek **desgaitasuna duten emakumeen beharretara egokituta** egongo dira.
5. Zerbitzu espezializatu hauek **autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetara egokituta** egongo dira.



9. Artikulua

Sexu eta ugalketa osasunari buruzko prestakuntza hezkuntza-sisteman


1. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen barruan, sexu eta ugalketa osasunari buruzko prestakuntza kontutan izango dute. Prestakuntza hori pertsonaren garapen integralerako eta balioen hezkuntzarako funtsezko elementutzat hartuko da, pertsonaren duintasunean oinarrituta emango da, eta ikuspegi interseksionala izango du. Prestakuntzak helburu hauek betetzen lagunduko du:

a) **Plazera, desira, askatasuna eta errespetua** oinarri hartuta, sexualitatea berdintasunaren, elkarrekiko ardura partekatua eta aniztasunaren ikuspegitik ulertzea. Arreta berezia jarriko da arreta **genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren prebentzioan**.

b) **Sexu aniztasuna aitortzea eta baloratzea**.

c) Bizitzako etapa bakoitzean **sexualitatea era osasuntsu eta harmonikoan** garatzen laguntzea, bereziki **nerabezaroan eta gaztaroan**.

[...]



9. Artikulua

Sexu eta ugalketa osasunari buruzko prestakuntza hezkuntza-sisteman


d) **Sexu-transmisiozko infekzioen eta gaixotasunen prebentzioa**, batez ere **GIBaren eta GPB** kasuan. Era berean, ikusgarritasuna emango zaio GIB+/HIESA duten pertsonen errealitateari, birusaren agerpenetik gaur arte, eta haien beharrak eta diskriminazioa gainditzeko proposamenak azpimarratuko dira.

e) **Desiratu gabeko haurdunaldien prebentzioa**.

2. **Hezkuntza afektibo-sexuala**, bere dimentsio guztietan, **derrigorrezko hezkuntzaren ikasketa-planaren parte** izango da. Prestakuntza horren arduradunak behar bezala gaitutako profesionalak izango dira, indarrean dagoen araudiari jarraituz: abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, zeinak maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoa aldatzen baitu.



10. Artikulua




Hezkuntza-komunitateari laguntza

Administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, hezkuntza-komunitateari laguntza emango diote sexu-hezkuntzarekin, sexu bidez transmititzen diren infekzioen prebentzioarekin eta nahi ez diren haurdunaldien saihestearekin lotutako **prestakuntza-jarduera osagarriak** burutzeko.

Horretarako, informazio egokia eskainiko diete irakasleei, gurasoei eta adintxikien edo ezgaitasunen bat duten pertsonen legezko tutoreei.



10. Artikulua ter




Neurriak menstruazio-hezkuntzaren alorrean

Menstruazioaren osasunari buruzko ikuspuntu integral bat lantzea bermatuko dute hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen barruan. Lanketa, hezkuntza afektibo-sexualaren esparruan eta etapa desberdinetako ikasketa planetan egingo da. Gainera, genero ikuspegia, interseksionalitatea eta eskubideen defentsa kontuan hartuko dira, bai hezkuntza formal zein informaleko arloetan, menstruazioaren estigma sortzen duten genero estereotipo, mito eta aurreiritziak desagerrarazteari begira.



10. Artikulua quarter




Neurriak hezkuntza ez formalaren alorrean

Administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, hezkuntza ez formaleko arloan sexu eta ugalketa hezkuntzako **programa publikoak sustatuko dituzte**. Programak helburu dituen pertsonen egoera, beharrak eta interesak kontuan hartuko ditu. **Arreta berezia jarriko zaie klimaterio eta menopausia prozesuak igarotzen dituzten adin-tarteetan dauden pertsoneri.**



10. Artikulua quinquies




Kanpaina instituzionalak prebentzioaren eta informazioaren alorrean

1. **Sexu eta ugalketa eskubideen sustapena helburu duten kanpainak** bultzatuko dituzte administrazio publikoek, beren eskumenen barruan. Kanpainok helburu izango dute lege organiko honetan aurreikusitako eskubideak sustatzea. Horrela, **menstruazioaren osasuna eta menopausiaren osasuna** sustatuko dira bizitzako etapa desberdinetan.
2. Sexu eta ugalketa osasunaren gaineko **prebentzioaren eta diagnostiko goiztiarren inguruko kanpainak** egingo dira. Kanpaina horiek zabaltzeko, medioak, publizitatea, internet, sare sozialak eta teknologia-enpresak erabiliko dira.
3. Kanpainak **irigarriak** izango dira, adinak, desgaitasunak edo hizkuntzak aintzat hartuko dituztenak. Berezi, **medio publikoetan eta hezkuntza, gizarte, osasun, kultura eta kirol zentroetan** zabaltzeko izango dira.




10. Artikulua sexies




Formazioa zuzenbide zientzietan, hezkuntza zientzietan eta gizarte zientzietan

Hezkuntza-administrazioek, euren eskumenen baitan, kalitatezko, egokitutako eta nahiko diren osasunaren, sexu eta ugalketa eskubideen inguruko **edukiak** ikasketetan txertatzea sustatuko dute. Eduki horiek **zuzenbide zientziei, hezkuntza zientziei eta gizarte zientziei lotutako titulazioetan** integratuko dira.

Era berean, eduki horiek hezkuntza zientziei, zuzenbide zientziei eta gizarte zientziei lotutako administrazio publikoko kidego eta maila ezberdinetara sartzeko **oposizioetako gai-zerrendetan** sartuko dira.



Gure eskubideak



Osasuna

Hilekoaren osasuna, osasuna da: arreta integrala; profesional prestatuak; ikerketa.

Informaziora sarbidea

Adinari egokitutako informazioa, gizarte osoarentzat. Hezkuntza formala etapa guztietan baita hezkuntza ez-formala ere. Mitoak desagerrarazi.

Menstruazio produktueterako sarbidea


Ikastetxeetan, gizarte zerbitzuetan eta espetxeetan. Doan. Norberak aukeratutakoak. Bitartekaririk gabe. Produktu iraunkorrak.

Laneko bazarako sarbidea

Bigarren mailako hileko desgaitzailea izanez gero.

Menstruazio produktuen osaera

Substantzia kaltegarririk gabeak. Produktuen konposizioa publiko egin behar da. Gorputzean eta ingurunean duten eragina argitu behar da.



Zer egin dezakegu?



Recabar datos:

encuesta pobreza menstrual
en centros educativos



Únete a la acción:


aquí encontrarás más
información e ideas



#LO12023

#derechosmenstruales

Interpretazio juridiko hau Nora Pascual Armendárizek egin du.
Irakaslea da, Genero Ikasketetan masterra du, eta bere Master Amaierako
Lana eskola-adineko nesken hileko-pobreziari buruzkoa izan zen.
Menstrualmente Hablando proiektuaren bidez hezitzaile mentruala ere bada.
La Vida en Rojo izeneko elkarteko kidea ere bada.



Menstrualmente
hablando


www.menstrualmentehablando.com



La vida en rojo
ASOCIACIÓN DE CULTURA MENSTRUAL

www.lavidaenrojo.org

Euskaratzea Ara!Gorputz kooperatibak egin du.



Ara!Gorputz

www.aragorputz.eus



This work is licensed under CC BY-NC-SA 4.0